

ESAERA ZAHARRAK

1. Zein egoeratan erabiltzen da esaera zahar bakoitza? Lotu esaera zaharrak eta egoerak.

- 1. Odolkiak ordainetan.
 - 2. Gustuko lekuan, aldaparik ez.
 - 3. Askoren mina, tontoen atsegina.
 - 4. Zozoak beleari, ipurbeltz.
 - 5. Jan eta lo, beti potolo.
- a. Alaik sofán etzanda pasatzen ditu arratsaldeak, telebistari begira eta palomitak jaten.
 - b. Bikote batek haurra izan du eta bizitza asko aldatu zaie: orain ezin dituzte egin lehen egiten zituzten gauza asko, lo gutxi egiten dute... Baina pozik daude.
 - c. Pertsona batek min eman dio beste bati. Ondoren, min hartu duenak min egin dio aurreneko pertsonari.
 - d. Pelok azterketa suspenditu du, baina ikusi du ikaskide askok ere suspenditu egin dutela. Horregatik, lasai dago.
 - e. Unai Xabiri "sudurluze" esaten dio, baina Unai ere sudur luzea du.

2. Goiko zein esaera zahar dago emotikono-segida honen atzean?



3. Proposatu emotikono-segida bat beste esaera zaharrentzat. Ondoren, eman zuen proposamena beste talde bati, ea nork asmatzen dituen denak azkarren.

4. Ikusi talde guztien proposamenak eta puntuatu 1etik 10era emotikono-segida bakoitza. Zein da segidarik onena kasu bakoitzean?

	Taldea: ____	Taldea: ____	Taldea: ____	Taldea: ____	Taldea: ____
Odolkiak ordainetan.					
Gustuko lekuan, aldaparik ez.					
Askoren mina, tontoen atsegina.					
Zozoak beleari, ipurbeltz.					
Jan eta lo, beti potolo.					